

HERRIKO EUSKARA ETA KULTURA EZAGUTZEKO AUKERA UGARI / ESKOLAKO EGOKITUTAKO MATERIALAZ GA
HIZTEGI ELEKTRONIKOA, EUSKARAREN MEDIATEGIA ETA HERRIKO JAKITURIAREN GAINEKO LIBURUA EGIN DITU.

Bakio bere hizkuntz ondarea zabaltzen ari da

Bakioko Udalak herriko hizkuntz ondarea zabaltzeko hainbat tresna ipini du martxan. Proiektua Iñaki Gamindek eta Mendebalde Kultur Alkartean ondu hori «batu, ikertu, didaktizatu eta antolatzeko» eginiko lanean oinarritzen da, eta horri esker, eskolan material didaktiko berria dute, hiztegi elektronikoa jarri dute salgai, euskararen mediategia sortu dute, eta herriko jakituria liburu batean islatu dute.

Nerea GOTI

BAKIO


Bakion, herri txikia izanik, bi mila biztanle baino apur bat gehiago baititu, herriko kultur ondarea eta, batez ere, hizkuntza protagonista dituen asmo handiko proiektu bat jarri dute abian. Berrikuntza nagusi bat du: teknologia multimedia erabili dute, eta horri esker, informazioa edonork eskura dezake. Abantaila handia da, material zati handi bat entzun eta ikusteko aukera ematen baitu.

Orain hiru urte, Udalak eta Mendebalde Kultur Alkartean hitzarmen bat sinatu zuten, «Bakioko hizkuntz ondarea batu, ikertu, didaktizatu eta antolatzeko proiektua» gauzatzeko. Iñaki Gaminde izan da egitasmo horren zuzendaria. Inork baino hobeto ezagutzen ditu hizkuntzalari bizkaitarrak Bakioko euskararen eta tradizioen barruak, duela zazpi urte inguru «Bakio berbarik berba» izeneko liburua egin zuelako, eta horren ostean, toponimiaren gaineko azterlan bat ere egin zuelako. Izan ere, neurri handi batean, aurretik eginiko azterketa horien emaitza da Bakioko ondarearen gainean aurkeztu berri duten proiektu hori.

Udaleko Euskara Saileko arduradunek azaldutakoaren arabera, eskuartearen zuten proiektua askoz zabalagoa zela-eta, Gaminderen bitartez Mendebalde Kultur Alkartearekin jarri ziren harremanetan lana bideratzeko. Izan ere, Udalak zehaztu duenez, Gaminderekin batera lan-taldean beste bost aditu aritu dira: Ander Olalde, Esther Elgoibar, Idoia Markaida, Begoña Bilbao eta Juan Luis Goikoetxea.

Horrelakoak izan ziren egitasmoaren hasierako urratsak, eta helburu zehatz bat izan zuten: «Hizkuntz ondarea didaktizatzea eta gaur egungo gizarte-egokitutako produktuak ateratzeko». Egitasmo horren emaitzak dira, hain zuzen ere, ezagutarazi berri dituzten lau ekimenak: eskolarako materiala, hiztegi elektronikoa, mediategia eta datorren urtean kale-ratuko duten liburua; herriko pasadizoak, kantak, bertsoak eta beste bilduko dituen argitalpena izango da azkeneko hori.

Martxan jarri duten proiektuaren atalen artean, eskolari zuzendutakoa da interesgarrienetako bat. Herrian duten zentro bakarra Lehen Hezkuntzako da, eta ikasturte honetan



Marisol RA

Herriko hizkuntza ondarea batu, ikertu, didaktizatu eta antolatu dute Bakion multimedia proiektu berri baten bid

Parte de la información ya está en la página web

Parte del material producto del trabajo del lingüista Iñaki Gaminde en colaboración con Mendebalde Kultur Alkartea está a disposición del público en la página web del Ayuntamiento, www.bakio.org. Así, a través de esta ventana se puede acceder ya a la mediateca, para recabar testimonios de vecinos de Bakio en el euskara del lugar, sobre varios temas. A esta información en la red se sumará el próximo año el diccionario electrónico, que el Consistorio ha puesto a la venta, de momento, entre los vecinos del municipio. •

bertan material didaktikoa estreinatu du, «Bakio eta eskola» izena duen gida didaktikoa eta DVDa.

Eskolan, herria protagonista

Eskola curriculumari begira egokitutako material berri hori ikasturte honetan hasi dira lantzen, eta bertoko kultura eta jarduerak ditu protagonista nagusi. Udaleko Euskara Sailak azaldu du: «Bakio herria erreferentziatzen duten hainbat gai lantzen dira, Heziketa esangu-

ratsua deitzen dena lantzen da, eta hurbileko jakintzaren bitartez beste esparruetara ailegatzeko da». Adibide modura, jorrratzen diren gaien artean, herrian ospe handia daukan txakolina aipatzen da. «DVDan txakolina ekoizteko prozesua azaltzen da, eta gidaliburuaren bitartez, umeek kimika arloko jakintza landuko dute. Antzeko esperientziak izaten dituzte beste hainbat gaiekin. Herriko erreferenteak abiapuntutzat hartzen dira, gero kultur ezagu-

tza zabalagoetara gigitu dute bultzatzai

Bestalde, hiztegi da proiektuaren bidea. Duela gutxi atera zuten, eta horregatik ezin izan dute harr

Memento, herri ten atal horretan ekituko ditu bisitar estandarra eta Bara. Hartara, herri ezagutzen ez du tresna horren bi normalizatura jo

HERRITARREN AHOTSA / HAINBAT GAIREN GAINEKO SOLASALDIAK ENTZUN AHAL DIRA

aukeratu eta sakatuta, Bakioko aldaera agertuko zaio. Erabiltzaileak hitz hori Bakioko euskaran nola ahoskatzen den entzun ahal izango du, eta, era berean, nola idatzi behar den. «Euskara batua, bizkaiera literarioa eta herriko euskara batzeko modu bat da, eta, gainera, berrikuntza on bat dauka: entzun ahal dela», nabarmendu dute teknikariek.

Entzun eta ikusteko aukera

Hizkuntzarekin lotuta, Euskararen Mediategia ere zabaldu du Udalak. Mendebalde Kultur Alkartea eta Iñaki Gamindek berak urteetan batutako artxibo guztiak batzen ditu atal horrek. Gaien arabera antolatu dituzte, eta gai bakoitzaren inguruan Bakion batutako informazio guztia biltzen da audio euskarran eta bideoarekin.

Mediategian klik egiten duenak hamabi gai inguru

aurkituko ditu. Sineskerak, ogibideak, landareak eta animaliak gaiak jorratzen dira, besteak beste. Gai bakoitzaren inguruan, informazioa eman dutenen zerrenda agertzen da, euren adinekin eta dokumentua hartu zeneko datarekin. Ondoan, bisitariak dokumentua entzun edo ikusi aukeratu ahal izango du.

Bestalde, herriko jakintzari gainbegiratu bat egiten dion liburua da proiektuaren azkeneko produktua. Argitalpena ez dago oraindik ere kalean. Izan ere, lana apirilerako bukatuta egongo dela jakinarazi du Udalak, baina seguru asko datorren urtean kaleratuko dutela azaldu dute. Memento, herriko kultur ezaugarriak batuko dituela adierazi dute, eta kantetatik hasita, pasadizoak, bertsoak eta, oro har, «herriko jakitatea» azalduko duela esan dute bultzatzaileek.

Iñaki GAMINDE | Hizkuntzalaria

«Hurrengo Uribe Kosta izan daiteke»

Aurkeztu berri duten Bakioko proiektuak oihartzuna izan du, eta horregatik, esperientzia beste leku batzuetara eroango dutela adierazi du Iñaki Gamindek.

–Mendebalde Kultur Alkartearekin egindako lanaren emaitza da atera berri den produktuen eskaintza. Zer motatako lana izan da?

Medebaldeko kideak diren batzuk egon dira lan-taldean; sei lagun izan gara, eta urte biko lana izan da. Oso lan zabala da. Batetik, DVDa eta gida didaktikoa atera ditugu, Bakioko ondaretik abiatuta, Lehen Hezkuntzako curriculum hartu eta bertako gauzak aplikatu ditugu curriculumean. Bakioko altxorra islatzen du, bertako bideoak daude eta bertako jendeak egiten du berba. Gero, badago bertako hiztegia, eta bereziena da normalizatu egiten dela eta entzun egiten dela, eta mediategian 10.000 artxibo dauzkagu audio, bideo eta irudiekin, urteetan batu ditugunak.

–Produktu horien artean zein nabarmenduko zenuke?

Bitxiena «Bakio eta eskola» da, hain modan dagoen euskal curriculum propioa zelan gauzatzen den erakusten duelako. Hizkuntzaren eremuan, euskara batua, tokian tokioa eta

eredu literarioa uztartu egin dira horretan eta praktikan. Didaktikoki, interaktiboa denez, umeak maneia dezake informazio guztia irakaslearen gidaritzapean.

–Zergatik hain proiektu handia nahia Bakion, hain herri txikia izanik?

Eurek interesa izan eta bultzatu dutelako eta ekimenari babesa eman diotelako. Jende asko laguntzeko prest azaldu da. Pentsa, 200 berriemaile izan ditugu. Beste herri batean egin daiteke, baina ez gauza bera, unibertsoa Bakion eta Hernanin berdinak dira, desberdina da unibertso hori espresatzeko era. Hurrengo pausoa argi dago eskualdeek izan behar dutela, herrialde osoek edo beste esparru handiago batzuek.

–Eskararik jaso duzue?

Jende asko etorri zaigu; interes asko sortu da. DVDa irail aldera agertu zen eta Coopnagera eroan genuen pedagogiarri buruzko munduko kongresu batera. Euskal Herri osotik, baina, batez ere, Bizkaiko hainbat lekutatik, eta uste dugu hurrengo eskualderen bat izango dela. Ez dakigu oraindino Uribe Kosta izango den. Orain zortzi gara taldean, eta lana koordinatu behar dugu. •

Nerea GOTI



Koloredun margolanak jendearen atentzioa piztu zuen.

Herriarrek «Orereta» margolana plazaratu

▷ XVII. mendeko toki izenak biltzen ditu atzo aurkeztu

Hainbat oreretar batu ziren bertan Herriko Plazan «Orereta 1610» margolanaren aurkezpena. Lanak herriak XVII. mendean zuen itxura erakusten du, urak ia guztiz ingurututa.

Ikerlariek, gainera, bildu dituzte. Topo txingor lurmuturraren izenez deitzen dute

Gontzal LANDA

DONOSTIA

Aurkezpen ekitaldia bertan egin zen herriko plazan eta hainbat herritarrek parte hartu zuten. Atzerabegirako bideo emanaldia egin zuten eta Oreretak historian izan dituen itxurak ikusi ahal izan zituzten. Antolatzaileek margolana pantailaratu zuten, hain justu, urteetako lana behar izan duena.

Ibilbide horretan ikerlariei agian burukominik gehien eman dien zeregina desagertuta edo desagertzearen dauden toponimoak berreskuratzea izan da; baita izen horiek margolan behar den tokian kokatzea ere. «Toponimoen artean adibiderik interesgarrienetako bat egun Kaputxinos deitzen dena da: garai batean herritarrek Matxingo lurmuturra deitzen zioten», azaldu du ekimen horretan aritu den Mikel Lizarralde.

Bere hitzetan, toki izenak berreskuratzea garrantzitsua da; batez ere, belaunaldi berrientzat, gazteek ez dituztelako ezagutzen orain hamarkada batzuk jendeak ahoz aho eguneroko-eguneroko erabiltzen zituen toponimoak.

Horren beste adibide bat Aurrerako edo Askabideko zubia da. Garai batean Ugarritzeko zubia deitzen zioten, eta herria ontzilekin lotzen zuten. Horren gainean, historia jakitunek azaltzen dute herriko ekonomia-jarduerarik nagusia un-

tzigintza zela; 1590 eta 1611 artean oparoaldi nabarmena bizi izan zuena, hain justu.

Margolanen Orereta herria urak ia erabat inguratuta agertzen da. Horregatik, XVII. men-

dear
rre.
kur
der
zite
ema
an t
Bar
zue

Erai

Her
land
gus
160
157
Eliz
dori
ra h

M

xeh

best

ak

uda

lonj

dea,

tzek

Sant

ka,

ko i

M

Gra

izan

ta i

ema

tuan

kal

kier

udal

tiz e

ema

hain

rret-

kezp

Memoria historikoari eusteko artelana eta ikerlana

«Orereta 1610» lanean parte hartu dutenek herriaren memoria historikoari eustea izan dute helburu nagusi; memoria hori baita pertsona nahiz kolektibo gisa duten nortasunaren zutaberi garrantzitsuenetako bat. Era berean, ezinbestekotzat jotzen dute beren nortasuna «eraikitze eta sostengatzeko» bidean. «Izan ere, margolan berria gure hizkuntza, gure kultura eta gure ohitura eta usadioak gordetzeko lanabes erabilgarria izan daiteke», esan dute. •